

ERDIKO KAIERA

BIDE ERTZEAN

«Pasa zena pasa bazen ere, kantuetan behintzat gogora ekarri nahi dugu 1977. urtea»

Jakin-minak 1977ra eramán du Bide Ertzean taldea berriki kaleratu duten 77 diskoan. Seigarren abestiari izenburua eman dion Araneko iturrian bildu gara Imanol Ubeda abeslari eta gitarra-jotzailearekin, trantsiziorainoko bidaian hausnartutakoak ezagutzeko.

| LANDER ARRETXEIA |

Argazkiak: Baxi Ubeda

Oinarrietara itzuli zarete, bost taldekide izate-tik, hasierako hirurak izatera igarota. Horrez gain, Suso Saezek eta Jordi Morak ordezkatu dute orain arte soinuaz eta ekoizpenaz arduratu den Kaki Arkarazo. Zer eragin du horrek abestietan?

Eragin handia izan du. Elementu artistiko gutxiagorekin lan duin eta zentzuzko bat egiteko gai ote garen ikusi nahi izan dugu. Disko honetan ez dute gurekin lan egin Fran Iturbe gitarra-jotzaile bikainak eta Euskal Herriko piano-jotzaile onenetariko den Joserra Senerenak. Elementu horiek gabe asko aldatu da emaitza. Gainera zuzenean grabatu dugu, hiru taldekideek batera joz. Diskoak beste aire bat du soinuari dagokionez, eta instrumentazio aldetik askoz ere oinarritzkoagoa da. Oinarrian utzi ditugu abestiak, eta saiatu gara elementu gutxi horiekin ahalik eta gauza txukunena egiten.

77-rekin, *Non dira* diskoan hartutako bideari jarraipena eman diozue.

Bai, hala da. Disko haren itxura baduela uste dut. Duela zazpi urte plazaratu genuen *Non dira*, eta 36ko gerrari buruzko diskoa zen. Gure etxean izan zuen eraginetik abiatuta, gerrari buruzko hausnarketak egin genituen. Disko honetan ere, berdin. Gure osabaren eraiketatik abiatu gara, gertaera horrek jakin-mina piztu digu, 1977ko testuinguru historikoa ezagutzeko nahia. Garai hura askorentzat ezezaguna dela iruditzen zaigu, baina oso garrantzitsua da, era berean.

Bestetik, atzera begira jartzen garenean, idealizatzeko joera dugu maiz. Orain, zazpi



Joni Ubeda, Ima Ubeda eta Karlos Arancegui.

urte beranduago, uste dut *Non dira* diskoa sortzerakoan ere hala izan zela. 1977ari begira jarri garen honetan arrisku hori bazegoen arren, ez dut uste idealizazioan erori garenik. Ez diogu garaiari nostalgiatik begiratu, jakin-minetik baizik.

Trantsizio garaiko gazte belaunaldiari eskainitako lana da. Zer du berezi belaunaldi hark?

Orain garai historiko batean gauden bezala, 1977 ere urte esanguratsua izan zen. Francoren ondorengoek monarkia parlamentarioa betikotu nahi zuten erreformaren bitartez, eta hori errotik aldatu nahi zuten gazte asko eta asko altxatu egin ziren. Mundu berri batekin egiten zuten amets, eta horren alde borrokatu zuten. Errepresio izugarria jasan arren, aurpegia eman zuten gazte haiek.

Esaterako, 70eko hamarkadan hasi ziren ikastolak sendotzen. Ibarren adibidez, Uzturpe ikastola jarri zuten martxan gure osabak, amak eta beste askok. Gaur egun, ikastola da Ibarren dagoen ikastetxe bakarra. Badirudi ikastolak bat-batean sortu zirela, baina ez zen erraza izan. Sekulako ahalegina egin behar izan zuten. Ikastolen fenomenoari esker, gainera, Tolosaldeko eskola publikoetan eta mojenetan ere euskaraz ikas daiteke gaur egun. Bestalde, garai hartako langileek lan handia egin zuten haien eskubideen alde borrokatzeko. Elkartasun giroa erabatekoa zen. Haiek lortutako guztia galtzen ari gara orain; ez dugu asmatzen horri nola aurre egin.

Orduan ere izango ziren okerrak eta kontraesanak, baina orokorrean, belaunaldi eredugarria izan zen, gaur egun kontutuan hartzeko modukoa.

Zergatik ekarri duzue gogora zuen osaba Sebasen eraiketa? Omentzeko? Salatzeko? Korapiloa askatzeko?

Ez dut uste omenaldia denik, gertakari ilun baten konstatazioa baizik. Badirudi inbentarioa egiteko garaia iritsi dela. Nagusiki ETAREN jarduerari begiratzen diote gehienek. Jende asko hil du ETAk, hori argi dago. Baina hildako gehiago ere egon dira azken hamarkada hauetan, eta ez bakarrik GALek edota GALen parekoek eragindakoak. Segurtasun indarren eskuetan edota errepresioaren ondorioz bizia galdu zutenak ere badira. Eta horiek ez ditut zerrendatuta inon ikusi. Garai bat itxi eta berri bat irekitzeko, hildakoen arteko mailaketa saihestu beharko litzateke.

Badago besterik ere, disko hau prestatzen hasi ginenetik hona deigarri egin zaiguna. Zein babestua dagoen polizia. Edozein



Fikzioa lagungarri

“Gauzak hobeto ulertzen laguntzen dit fikzioak. Koldo Izagirreraren *Egarri* egunak

portualdean liburua 1977an kokatzen da eta orduko gazte bat du protagonista. Haren bidez kontatzen dira garai hartako pasarteak, giroa, usaina, kolorea eta baita borroka ere. Fikzioak

xehetasunetan erreparatzen du, historia liburuek baino ikuspegi gizatiarragoa eskaintzen du. Gure kasuan, diskoak norbaiti 1977ko garaia hobeto ezagutzeko gogoia pizten badio, asko poztuko gaitu. Gero bakoitzak nahi bezala interpreta dezala garaia, baina jakin behar dugu nondik gatozen”.

IMA UBEDA

gehiegikeriaren denean, agerian geratzen da adierazten ari naizen hauxe. Hori ez da aldatu azken 40 urteotan. Pareta baten kontra jotzea bezala da. Administrazioaren jarrera, zentzu horretan, oso hermetikoa da.

Franko hila zen Sebas eta Zaharra erail zituztenean, eta amnistia iristear. Haatik, orduko zenbait hedabidek ezin izan zuten gertatutakoa nahi bezala kontatu.

1977ko martxoaren 8an erail zituzten Sebas eta Zaharra, Guardia Zibilarren kontrol batean. Bertsio ofizialaren arabera, ohiko kontrol batean geratu zuten haien autoa; dokumentazioa eskatu zieten, autoaren barnetik tiroka hasi ziren

eta enfrentamendu armatu horren ondorioz hil ziren biak. Baina lekukoaren esanetan, kontrolak iraun zuen denbora horretan Guardia Zibilarren metralletaren soinua besterik ez zen entzun. Kontrolaren erruz sortutako autoilaran zeuden moja batzuek zauritutakoak lagundu nahi izan zituzten, baina ez zieten utzi. Sebas eta Zaharraren ebakuazioa ere, lekukorik gabe egin zuten. Segada izan zela zabaldu zen.

Baina garai hartan oraindik, Franko hil eta gero ere, zentsura giro izugarria zegoen. Adibidez *Anaitasuna* aldizkariaren orduko aleari erreparatuz gero, argi eta garbi islatzen du gertatu zena. Adierazgarria da Loiolako Herri Irratiaren pasarte ere. Ezin izan zuten lekukoaren bitartez jasotako bertsioa kontatu, eta nahiago izan zuten emisioa eten, gezurretan aritu baino.

Entzun bakarrik ez, irakurri eta arretaz begiratzeko diskoa ere bada 77. Abestiek iradokitzen dutena gorpuzten dute testu eta irudiek.

Kantuak grabatu genituenean eta diskoko liburuxka osatzen hasi ginenean, konturatu ginen kantuek helduleku baten beharra zutela. 70eko garaia ezezaguna da batzuentzat, eta orduko testuinguruan kokatu behar genituen abestiak. Kazetariak gara eta kronika moduko bat egin genezakeen. Baina hori egina dago aurretik. Kantu hauekin hasi ginenean, *Egarri egunak portualdean* (Susa, 2011) nobela plazaratu zuen Koldo Izagirrek. Garai hartan kokatzen da nobelaren trama. Guretzat opari ederra izan zen, urte haietara garraiatzen baitzaitu nobelak. Horregatik, erabaki genuen kantuei beste oinarri batzuk eranstea. Kantu bakoitzak bere azalpena dauka diskoko liburuxkan, eta horretaz aparte Garbiñe Ubedak eta Koldo Izagirrek idatzitako narrazioak gehitu ditugu. Gainera, Koldoren kontakizunak osaba eta gu lotu gaitu, nola gainera. Zentzu osoa du, gure ahalegina hori baita azken finean: osabaren eta



bere belaunaldikoen ahalegina nahiz oroimena biziaraztea.

“Atzera begira jarraitzen dut kantatzen, pasa zena pasa zen, baina sustraiak dauzkat, sustraiak zainen orde.” Diskoa justifikatzen duen esaldia dirudi.

Gaur egungo gertakari asko uler daitezke atzera begira jarritz gero. 77ko garaia ulertzeko ere 36ko gerra ezagutu behar da. Ekidin ezina dela uste dut. Buruan banuen noizbait osaba Sebasi buruz idaztea. Baina ez nekien noiz aterako zen, edo nola. Kantu horrekin esan nahi izan dudana da, aurrera begiratu beharra dagoen arren, ezin dugula dena ahaztu. Pasa zena pasa bazen ere, kantuetan behintzat gogora ekarri nahi dugu.

Mikel Iburgurenen olerki bat ere moldatu duzue. Maiz errepikatu duzuen esaldi eta guzti: “kantu baten barruan kabitzen den aberria da gurea”.

Kantu horrek historia xelebrea du. Taldea martxan jarri genuenean, 1998an, musikatu

“Garai bat itxi eta berri bat irekitzeko, hildakoen arteko mailaketa saihestu beharko litzateke”.

egin genuen abesti hori, baina LP txiki hartan ez ziren 21 minutu besterik kabitzen, eta sei kantutatik bat kendu behar zen. Mikel Iburgurenen poemarekin egindakoa baztertu genuen azkenean. 77 diskoko kantuekin hasi ginenean, ez genuen oso argi disko bat aterako zen edo ez. Abesti horiek sortzean gogoratu nintzen lehenengo lanean baztertu genuen kantu harekin. Doinu berria jarri genion eta diskoan sartzea deliberatu genuen. Poemak hala dio: *oroitzapenez osaturiko aberria da nirea*. Esaldi horrek gure ibilbidea definitzeko balio du. Gainera, aberriaz egiten diren hausnarketa poetikoak asko gustatzen zaizkigu.

Webgunea berri duzue, eta bertan 77 salgai dago jada. Noiz ikusiko zaituztegu taula gainean? Berezitasunik izango du zuzeneko emanaldiak?

Diskoa aurkezten iraila bukaeran hasiko gara. Lekunberrin egingo dugu lehen emanaldia, Kantinan. Musikarako beti dira garai konplikatuak, baina are gehiago gaur egun. Oraindik musika programatzeko aretoak eta kontzertuak antolatzeko prest dagoen jendea badaudela ikustea zoragarria da guretzat. Horregatik, polita izango da Kantina bezalako toki batean hastea. Horrez gain, Bilboko Kafe Antzokian, Donostiako Gazteszenan, Arrasateko Gaztetxean, Azkoitiko Matadeixen eta Barañaingo Auditorioan joko dugu.

Bestetik, diskoan bezala, zuzenekoetan ere hirukote gisa arituko gara. Zentzu horretan, Bide Ertzean izaten jarraituko badugu ere, zuzeneko emanaldiak kutsu ‘rockeroagoa’ izango duela iruditzen zait.

Musikagintza ez duzue ogibide, baina 9. diskoa da honakoa. Denbora eta inspirazioa lortzea ez da erraza izango. Bide Ertzeanek bide luzea du oraindik?

Bide luzea egin dugula esan dezakegu behintzat. Ez da erraza musika talde bat mantentzea. Azken finean pertsonak gara eta norberak bere kezka eta lehentasunak ditu. Orain arteko ibilbideari erreparatu gero, hamabost urtean bederatzi disko plazaratu ditugu. Hasi ginenean ez nuen uste horrenbeste egingo genuenik. Ez dakit bidea luzea izango ote dugun, baina gustatuko litzaidake. Guk giro onean jarraitzen dugula, publikoa badugula eta gure diskoak argitaratu nahi dituztela adieraziko luke horrek. Unean unekoa bizi dugu. Orain 77 diskoa dugu buruan; gero geroakoak. ■

